

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2019ko urriaren 31n aurkeztuko du

Jesse Jones: Dar-dar

Jesse Jones: Dar-dar

- Datak: 2019ko urriaren 31tik 2020ko martxoaren 1
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2019ko urriaren 31tik 2020ko martxoaren 1ra, Guggenheim Bilbao Museoak *Jesse Jones: Dar-dar (Tremble Tremble)* aurkezten du. Film & Video aretoaren 2019ko programazioaren hirugarren eta azken erakusketa da. Areto horretan, hainbat mugimendudun irudia, zinema esperimentalak eta bideo-instalazioarekin lotura duten arte-praktikak erakusten dira.

Honako hau Jesse Jones (Dublin, 1978) artistaren asmo handiko instalazio bat da, zeinak zinema, eskultura, zuzeneko ekintzak eta soinua elkartzen baititu. Obraren erdian bi bideo-pantaila itzel daude, eta haietan sorgin erraldoi baten irudiak agertzen dira. Sorginak emakumearen eta naturaz gaindiko indarren boterea irudikatzen du. Pertsonaia horrek beste ordena juridiko bat aldarrikatzen du; «In utera Gigantae» du izena, emakumearen botere xamanikoan oinarrituta dago, eta beste lege edo gobernu guztiak baliogabetzen ditu.

Dar-dar 2017an sortu zen Veneziako 57. Bienalean Irlandak izandako pabiloirako, eta Irlandan abortuaren legeei buruz eztabaida tirabiratsuak izan ziren une bat islatzen du. Halaber, identifikazio nazionala edo etnikoa gainditzen duen arketipo intemporal baten erretratu modukoa ere bada. Hortaz, bideoa sorgin ahaltza, Olwen Fouéré aktore irlandarrak hezuramaitzen duena, paradigma feminista eta disruptibo gisa ikus daitezke; paradigma horrek errealitatea eraldatzeko ahalmena du, eta emakumeak emantzipatzeko tresna gisa aurkezten du sorginkeria.

Jesse Jonesek sakon ikertu ditu sorginkeriari lotutako erritualak eta mitologiak, eta Europako testuinguru eta herrialde desberdinetako lekukotzak jaso ditu feminismoaren eta kapitalismoaren arteko erlazioa eta emakumeek munduan boterea izateko aukera aztertzeke xedez. “Bereziki interesatzen zait estatuak emakumeen gorputzak zein testuingurutan kontrolatu izan dituen jakitea, eta oso garrantzitsua iruditu zait gai hori sorginen jazarpenarekin lotuta aztertzea”.

Dar-dar instalazioak zuzeneko emanaldi bat eskaintzen du, erakusketa-gunean bideoa proiektatzen den bitartean: minutu gutxiz behin, zeremonia-gidari batek herrestan eramaten du aretoa zeharkatzen duen gortina bat, eta zirkulu bat marrazten horma beltz batean. Obra osatzeko, hiru eskultura daude, eta zenbait objektu erakusketaren gelaurreko beira-arasetan jarrita, artistaren proiektuko funtsezko erreferentzia gisa.

Jesse Jonesek Europako eta Asiako hainbat erakundetara egokitu du bere obra, leku bakoitzeko etnografia kontuan hartuta. Obra Bilbon aurkezteko, Euskal Herriko sorginkeriaren historia eta haren

errituak ikertu ditu, eta arreta berezia eskaini dio argizaiola tradizionalari, zeina oraindik ere erabiltzen baita herri batzuetan. Silvia Federici teoriarari eta ikertzailearekin elkarlanean, Jones Euskal Herriko eta Nafarroako leku historiko, haitzulo, artxibo eta museoetako batzuetan izan da, eta Inkisizioak penintsularen iparraldean egindako sorgin-ehizaren historia ezagutu du. Horrela, beira-arasetan dauden objektuetako batzuek garbi erakusten dute Gipuzkoan eta Nafarroan etengabe egon izan direla erritu eta ekintza esoterikoak, eta horrek are gehiago indartzen du instalazio osoa.

Jesse Jones. Biografia

Jesse Jones 1978an jaio zen, Dublinen. Bere lanetan, soinuarekin, eskulturarekin eta performancearekin uztartzen du film- edo bideo-materiala, era guztietako gaiak aztertzeko; besteak beste, feminismoaren eta kapitalismoaren arteko harremana, emakumeen gorputzaren autonomia eta emakumeek munduan boterea izateko aukera.

2017an Irlandak Veneziako Bienalean izandako pabiloian ez ezik, Jesse Jonesek Europan eta Asian ere erakutsi ditu *Dar-dar* obraren bertsio desberdinak; esaterako, Talbot Rice Gallery galerian (Edinburgo), Institute of Contemporary Arts, LASALLE College of the Arts institutuan (Singapur), eta Project Arts Centre zentroan (Dublin). Artistaren obra banakako erakusketa askotan egon da ikusgai nazioarteko erakunde garrantzitsuetan; besteak beste, honako hauetan: Artangel (Londres), The Hugh Lane (Dublin), Artsonje Centre (Seul), Londonberry eta Spike Island (Bristol).

Dar-dar Tessa Giblin-ek eta Culture Ireland-ek egindako enkargua da jatorriz, Arts Council of Ireland erakundearen lankidetzarekin, Veneziako 57. Bienalean Irlandak izandako pabiloirako. Soinu-diseinatzailea eta musikagilea: Susan Stenger. Produkzioaren eta ikus-entzunezko programaren arduraduna: Aaron Kelly.

Artistekin solasean: Jesse Jones (urriaren 31n, 18:30ean)

Jesse Jones eta Manuel Cirauqui, Film & Video programazioaren komisario eta Guggenheim Bilbao Museoaren arte-arduraduna, solasean arituko dira *Dar-dar* proiektuari eta Euskal Herriko errituei buruz, baita obra honek gaur egun genero-politikaren inguruan dauden eztabaidekin duen erlazioari buruz ere. Urriaren 31n elkartuko dira, 18:30ean, Guggenheim Bilbao Museoaren Entzungelan. Hitzaldiaren ondoren, mahai-inguru bat egingo da bertaratzen direnekin.

Film & Video (103 aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako gunea da, eta Guggenheim museoetako bildumetan nahiz nazioarteko beste erakundeetan dauden obrak aurkeztea du xede. 2016an zabaldu zenetik, Film & Video aretoak honako artista berdingabe hauen sorkuntzak izan ditu ikusgai, besteak beste: Christian Marclay, Ragnar Kjartanson, Rineke Dijkstra, Kimsooja, Shahzia Sikander, Sam-Taylor Johnson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel eta Pierre

Huyghe. Michael Snow, Javier Téllez eta Diana Thater. Aurten, Allora & Calzadilla-ren eta Jusper Just lanak erakutsi dira..

Azaleko argazkia:

Jesse Jones

Dar-dar (Tremble Tremble, 2017)

Filma, eskultura, oihal mugikorra, soinu- eta argi-eszenografia

Neurri aldakorrak

Artistaren eskaintza

© Jesse Jones

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
Jesse Jones: Dar-dar (Tremble Tremble)
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Jesse Jones

Dar-dar (Tremble Tremble, 2017)

Filma, eskultura, oihal mugikorra, soinu- eta argi-eszenografia

Neurri aldakorrak

Artistaren eskaintza

© Jesse Jones



Jesse Jones

Dar-dar (Tremble Tremble, 2017)

Filma, eskultura, oihal mugikorra, soinu- eta argi-eszenografia

Neurri aldakorrak

Artistaren eskaintza

© Jesse Jones



Jesse Jones

Dar-dar (Tremble Tremble, 2017)

Filma, eskultura, oihal mugikorra, soinu- eta argi-eszenografia

Neurri aldakorrak

Artistaren eskaintza

© Jesse Jones

